


# Horrelako OSALANik EZ!

## Por otras políticas de salud laboral

ELA
EUSKAL SINDIKATUA




ELA deja en suspenso su participación en el Consejo General de Osalan. La deriva que ha tomado este organismo en los últimos meses nos ha llevado a esta decisión.

**1.- Las tasas de la siniestralidad y de las enfermedades profesionales en la CAPV, siguen estando en unos niveles inaceptables.** El Gobierno Vasco muestra un nulo interés por la salud laboral y no quiere abordar las razones de fondo de la siniestralidad, ya que ello implicaría adoptar decisiones que van en contra de los intereses de la patronal. Gobierno y patronal están de acuerdo en el modelo de relaciones laborales: dan por buenas la precariedad, el fraude de ley en la contratación y la subcontratación sin control, verdaderas causas de los accidentes de trabajo y enfermedades profesionales. En consecuencia, tanto la Inspección de Trabajo como Osalan no cumplen su papel de vigilancia, control y sanción de los incumplimientos en esta materia.

**2.- El Gobierno Vasco ha renunciado a hacer una política real en materia de salud laboral.** Muestra de ello es que el presupuesto de Osalan de 2010, que había tenido una reducción inicial respecto al anterior del 8,4%, va a sufrir un nuevo tijeretazo, que va a llegar hasta el 43%. Es un recorte escandaloso, sobre un presupuesto ya irrisorio, que no llega ni al 0,02% del PIB. La falta de una política efectiva se cubre con mucha propaganda, campañas, congresos vacíos de contenido… que de nada sirven.

**3.- Osalan instituto burocratizado e ineficaz, al servicio exclusivo de la patronal.** Su Consejo General (órgano que, entre otras funciones aprueba los planes anuales de Osalan) es una puesta en escena formal. La información que nos facilitan en el Consejo es insuficiente y parcial, y en algunas cuestiones, hay una ocultación deliberada de la misma (datos de inspecciones, actas de infracción y cuantía de las sanciones…). La dinámica de las reuniones ha ido de mal en peor, ni siquiera contestan a nuestras peticiones o preguntas.

**4.- Osalan como fuente de financiación.** Este gobierno, con los votos favorables de Confebask, CCOO y UGT, ha decidido solicitar fondos a la Fundación Laboral de Prevención de Riesgos Laborales del Estado. Los citados fondos son los remanentes de las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales implantadas en la CAPV, es decir, proceden de las cotizaciones sociales.

El criterio que defiende ELA en esta materia, mantenido hasta ahora por el Consejo General de Osalan y por el propio Gobierno Vasco, es que dichos fondos deben ponerse directamente a disposición de la CAPV, sin necesidad de pasar por la "ventanilla" de la Fundación.

La aceptación de este dinero de carácter público supone abrir la puerta a un modelo de reparto de fondos que va a permitir la financiación de la patronal y de los sindicatos de ámbito estatal.

**5.- Osalan plegado al modelo estatal.** El Gobierno Vasco pretende que la CAPV sea una Comunidad Autónoma más del Estado, también en seguridad y salud laboral. Ha adopta-

do decisiones que suponen un claro retroceso en el nivel de autogobierno, ha hecho dejación de sus competencias. La citada aceptación de los fondos de la Fundación Laboral supone la aplicación sin matices del modelo decidido en el estado. La misma regresión implica el convenio de colaboración suscrito entre Osalan y la Fundación Laboral de la Construcción, a través del cual se uniformiza la formación de las y los trabajadores de la construcción de la CAPV al resto del estado, aceptando lo dictado por una fundación estatal de carácter privado.

El modelo español es bien conocido. Ha sido y es un absoluto fracaso. En el estado español la administración se ha desentendido de la materia de seguridad y salud laboral, ha renunciado a su función de inspección y control en la materia y lo ha "privatizado" en figuras como las y los "delegados sectoriales de prevención", que no tienen capacidad sancionadora. A cambio, la patronal y los sindicatos que participan en este sistema reciben cantidades ingentes de dinero público. Éste es el modelo que quieren implantar aquí.




**6.- Osalan al servicio del "diálogo social".** La apuesta del Gobierno Vasco es clara: vaciar de contenido Osalan, instrumentalizarlo y ponerlo al servicio de la mesa de "diálogo social" con la minoría sindical. Todos los integrantes de la citada mesa de concertación están de acuerdo en este sentido. Así, acuerdos sin contenido alcanzados con la minoría sindical se llevan al Consejo General para obtener financiación. Son acuerdos que no van a suponer un avance contra la siniestralidad. La campaña "Lotu" (campaña para "evitar las caídas de altura en la construcción") es ejemplo de ello. Se van a destinar 400.000 euros del presupuesto de Osalan a su puesta en marcha.

CCOO y UGT han decidido acompañar al gobierno en todo lo que haga en esta materia, en un contexto de ajustes y vulneración de derechos laborales por parte de las administraciones. Se han sumado, por tanto, al acuerdo entre patronal y gobierno. El consenso de la mesa de "diálogo social" funciona a pleno rendimiento en el Consejo General de Osalan.

# EN CONCLUSIÓN

**Suspendemos nuestra participación institucional en Osalan para denunciar que lo han convertido en un organismo sin contenido ni medios, al servicio y para la financiación de las organizaciones que participan en el "diálogo social". Han reproducido el modelo estatal y han recortado nuestro nivel de autogobierno en esta materia. ELA no va a legitimar esta farsa.**

**ELA tiene alternativa:**

- **Exigimos un cambio radical en las políticas públicas en materia de seguridad y salud laboral: más inversión y medios públicos en la lucha contra la siniestralidad, y en la detección y tratamiento de las enfermedades profesionales.**
- **La eliminación de la precariedad, el fraude de ley en la contratación y la subcontratación sin límite.**
- **Mayor control, vigilancia y sanción de los incumplimientos por parte de la administración.**

**Debate y participación real, no supeditado al "diálogo social".**

- **Seguiremos luchando para conseguir condiciones de trabajo dignas y saludables en los centros de trabajo.**

**Eutsi borrokari lan osasunean ere!**




# Horrelako OSALANik EZ!

## Por otras políticas de salud laboral

ELA
EUSKAL SINDIKATUA




ELAk eten egin du bere parte hartzea Osalango Kontseilu Nagusian. Erakunde honek azken hiletan izan duen ibilbideak behartu gaitu erabaki hori hartzera.

**1.- EAE mailan laneko istripu eta gaixotasun profesionalen tasak onartu ezineko mailatan daude oraindik.** Eusko Jaurlaritzak lan-osasunari ez dio behar bezalako arretarik ematen, eta ezbeharren benetako zergatiei ez die heldu nahi; izan ere, hala egitekotan patronalaren interesen aurkako erabakiak hartu beharko bailituzke. Jaurlaritza eta patronala lan-harremanen ereduari buruz ados daude: ontzat ematen dute prekarietatea, kontratuetan dagoen iruzurra eta kontrolik gabeko azpikontratazioa; hots, istripuen eta gaixotasunen sakoneko arrazoiak onartu egiten dituzte. Horrenbestez, ez dituzte betetzen -ez Lan-Ikuskaritzak, ez Osalanek- gai honekiko arauhausteak kontrolatu eta zigortzeko dagozkien betebeharrak.

**2.- Eusko Jaurlaritzak baztertu egin du lan-osasunean zinezko politikarik egitea.** Horren adierazgarri, Osalanen aurrekontua: 2010rako aurreko urtearekiko %8,4 murriztuta zegoen arren, beste kolpe batean moztu egingo dute, guztira %43. Murrizketa eskandaluzkoa da, berezko aurrekontua barregarria baitzen, BPGren %0,02tik beherakoa. Taxuzko politikarik ezean, propaganda egiten dute: kanpainak, kongresu hutsalak... ezertarako balio ez duten ekimenak.

**3.- Osalan erakunde burokratizatua da, ezgauza eta patronalaren zerbitzutan dihardu.** Kontseilu Nagusia antzezpen formal bat besterik ez da (besteak beste, berari dagokio erakundearen urteko planak onartzea). Batzordeari ematen zaion informazioa eskasa eta partziala da, eta gai batzuetan propio ezkutatzen dira datuak (ikuskatzeari, arauhauste-aktei eta zigorren zenbatekoari buruz...). Bilerak gero eta okerrago joan dira; gure eskari eta galderei erantzunik ere ez diete eman.

**4.- Osalan finantzatzeko bide gisa. Jaurlaritzak, Confebask, CCOO eta UGTren aldeko botoaz, estatuko Fundación Laboral de Prevención de Riesgos Laborales-i funtsak eskatzea erabaki du.** Diru hori EAEko Lan-Istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitateek pilatzen dituzten soberakinak dira, eta beraz, kotizazio sozialetatik datoz.

ELAk, baina baita orain arte Osalango Kontseilu Nagusiak eta Jaurlaritzak berak ere, beste irizpide bat mantentzen du: diru hori zuzenean ipini behar da EAEko erakundeen esku, Fundazioko 'leihatila' horretara jo gabe.

Diru publiko hori onartzearekin funtsak banatzeko beste eredu bat ezarriko da: patronala eta estatu mailako sindikatuak finantzatzeko modua dakarren eredua, alegia.

**5.- Osalan, estatuko ereduaren menpeko.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da EAE estatuko beste edozein autono-

mi-erkidegoren modukoa izatea, baita laneko segurtasun eta osasunaren esparruan ere. Autogobernu mailarekiko atzerakada nabarmena dakarten erabakiak hartu ditu, eta bere eskumenak erabiltzeari uko egin dio. Fundazio Laboralaren funtsak onartzearekin estatuan erabakitako eredua aplikatzen da, inongo ñabardurarik gabe. Atzerakada berbera adierazten du Osalanek Fundación Laboral de la Construcción-ekin sinatu duen hitzarmenak; honekin EAEko eraikuntzako langileek jasoko duten prestakuntza estatuko gainontzeko tokietan ematen den berdina izango da; estatu mailako fundazio pribatu batek dioena onartzen da horrela.

Espainiako eredua aski ezaguna dugu; porrot egin du erabat. Espainian administrazioak laneko segurtasun eta osasunaz paso egin du; ikuskatzeko eta kontrolatzeko bere betebeharra baztertuta, 'pribatizatu' egin du, "prebentzioko sektore-delegatu" izeneko figura bati eman baitio egiteko hori (haatik, delegatuok ez daukate zigorrik ezartzeko ahalmenik). Horren truke, sisteman parte hartzen duten patronalak eta sindikatuek dirutza jasotzen dute kutxa publikoetatik. Horixe da hemen ere ezarri nahi duten eredua.




**6.- Osalan, 'elkarrizketa soziala'ren zerbitzutan.** Eusko Jaurlaritzaren apustua nabarmena da: Osalan edukirik gabe utzi nahi dute, erabili eta gutxiengo sindikalak parte hartzen duen "elkarrizketa sozial"eko (ES) mahaiaren zerbitzutara ipini. ESeko mahaikide guztiak bat datoz honetan. Gutxiengo sindikalarekin itxitako akordioak Kontseilu Nagusira eraman dituzte, Osalanek finantza ditzan. Baina akordio horiekin istripuen kontrako borrokan ez da aurrera egingo. "Lotu" kanpainak argi utzi du hori: kanpaina honekin eraikuntzan "goitik beherako erorketen prebentzioa" sustatu nahi omen dute. Osalanen aurrekontuko 400.000 euro bideratuko dira kanpaina hori egiteko.

CCOOek eta UGTk erabaki dute gobernuaren bidelagun izango direla gai honetan egiten duen orotarako, administrazioak murrizten eta eskubide laboralak urratzen ari diren unean bertan. Beraz, patronalaren eta gobernuaren artean zegoen akordiora bildu dira. ES mahaiko dinamika bete-betean islatzen da Osalango Kontseilu Nagusian.

## HAU GUZTIAGATIK...

**Osalango gure partaidetza instituzionala eten egingo dugu, salatzearren edukirik eta bitartekorik gabe utzi dutela eta erabili egiten dutela "elkarrizketa sozial" delakoan parte hartzen duten eragileak finantzatzeko eta hauen zerbitzutan jardun dadin. Estatuko eredua kopiatu dute eta esparru honetako autogobernu maila murriztu digute. ELAk fartsa hau ez du legitimatuko.**

**ELAk badu alternatiba bat:**

- **Lan-segurtasun eta –osasuneko politika publikoak goitik behera alda daitezela exigitzen dugu: Inbertsioa gehitzea eta diru publiko gehiago erabiltzea istripuen kontrako borrokan eta gaixotasun profesionalak detektatu eta artatzeko.**
- **Prekarietatea, iruzurrezko kontratuak eta mugarik gabeko azpikontratazioa desagerraraztea.**
- **Administrazioak legea betetzen ez den kasuetarako kontrola eta zigorrak areagotzea.**
- **Zinezko eztabaida eta parte hartzea, ez "elkarrizketa sozial"aren menpekoa.**
- **Lan-baldintza duin eta osasuntsuak lortzeko borrokan jarraituko dugu.**

**Eutsi borrokari lan osasunean ere!**